

Nazioaren subiranotasun monetarioa

Joseba Tobar Arbulu
EHUko irakaslea

Bernard Schmitt ekonomilariak aurkezturiko nazio monetarioaren subiranotasuna dugu aztergai. Alde batetik, edozein bankuren bi zeregin desberdin aipatzen dira, nazio monetarioaren barnekoa eta kanpo-harremanetarakoa. Bestetik, edozein nazio monetario independentek bere monetaz zer-nolako funtzionamendua eduki beharko lukeen aztertzen da, bi hipotesitan: (a) nazioarteko amankomuneko moneta egonen denean, eta (b) Europako amankomuneko moneta, baina ez mundu-mailako moneta, egonen denean. Bi hipotesiotan, nazio monetarioaren subiranotasuna nola babes daitekeen da arazoa.

The article analyses the notion of monetary nation's sovereignty, as developed by Bernard Schmitt. The two main tasks concerned to any bank are also mentioned, in order to deal with national and international economic exchanges. Monetary independence is under discussion. Independence, on both the monetary and economic side, is analysed within two hypotheses: whether we have or not an international currency for the whole world and/or for Europe.

Nazioaren subiranotasuna

Pellokeria batez has gaitezke: munduko produktu guztiak ekonomia nazionalatan ekoizten dira; nazio bakoitzaren aberastasun guztia nazio horren produktiotik dator; enpresa multinazionalen produktua ez da salbuespena. Beste era batera esanda, nazioarteko transakzioen espazioak ez du ezagutzen inolako produkzioerik.

Jacques Rueff ekonomilariak David Ricardoren emaitza sakondu zuen, hots, nazioek ezin dutela monetatan ordaindu, ondasun errealetan baizik. Izan ere, elkartrukeak ez dira egiten monetatik ondasun errealetara, ondasun errealetatik ondasun errealetara soilik baizik –alegia, edukinetik edukinera–, nahiz eta ekonomia erabat monetizaturik egon. Beraz, nazioarteko esparruan monetaren zeregina aztertu beharra dago.

Schmittekin batera (1984a), esan beharra dago ezen bankuaren zereginak bereizteko bankua bera bi departamendutan banatu behar dela. Hone-la, kanpo-departamendua Banku Zentralaren departamendua da, Altxor Publikoaren konturako funtzionatzen duena; departamendu honek edozein nazio gainerako munduarekin, multzo bezala harturik, dituen pagu hartzeko-dun eta zordunak gauzatzen ditu.

Nazioarteko ordainketaz arduratzen gara. Moneta nazionalak ez daukate inolako kompetentzia logikorik nazioarteko paguetan. Bretton Woodseko eztabaida berbera eztabaidatzeko, beste konferentzia antzekoren bat antolatu beharra dago; honela moneta berria agertuko da, saski-modukoa, zeinak soilik nazioarteko espazioan zirkulatuko duen. Bienbitartean nazio monetarioek ezin dute itxaron.

1. Hirutasun saindua: bancorra, euroa eta hogerlekoa

Jainkoak balira bezala agertuko zaizkigu hiru monetak gure zero urdinaren gainean, mundu mailan bancorra, eraikitzeo dagoen European euroa, eta sortzen ari garen Euskal Herrian hogerlekoa. “Izen duen guztia omen da” bide dio euskal esaera zahar batek. Alta, hiru moneta horiek izenak eduki arren ez dute, oraingoz, existitzen. Are gehiago, beraien existentzia moneta teoria berriak baldintzatzen du.

1. 1. Bancor delakoa

Dolarraren menpekotasunaren kontra, zorrak ongi neurtzeko bancorra edo antzeko monetaren bat behar-beharrezkoa da. Madrilen orain dela gutxi Nazioarteko Moneta-Fondoak eta Munduko Bankuak egindako bilera, lotsagarria izan da guztiz. Aukera galdua, 50. urteurrena ospatzeko.

Kontua zera da, nazioarteko kontu-unitatea nazioarteko pagu-unitate bilakatzea. Kontu-unitatea neurri ekonomikoen patroia da. Nazioarteko arloan, bancor bezalako kontu-unitate bakoitza unitate numeriko hutsa (numéraire) izanen da.

Kontu-unitateak ez-ondasunak dira; pagu-unitateak soilik eskain eta eska daitezke merkatuetan. Kontu-unitateak pagu-unitate bilakatzen dituen ekintza bakarra moneta-jaulkipena da. Edozein monetaren jaulkipena, jaulkitako moneta, monetan bertan gorderiko ondasun errealean ordezkari numeriko bilakatzen deneko operazioa da. Nazioarteko paguei dagokienez, printzipio horrek zera esan nahi du, bancorra moneta nazionalen patroia numeriko hutsa dela, Keynesek Bretton Wood-

sen erakutsi zuen moduan. Beraz, nazioarteko banku batek nazioarteko moneta jaulkitzea da lehen premia. Agian Nazioarteko Moneta-Fondo berriak har dezake bere gain jaulkipen hori.

1. 2. Euroa ez da jaulkiko inolako paralelismoaren bidez

Bazterrak gehiago ez nahastearren, kontu-unitatea eta pagu-unitatea bereizi beharra dago, eta gero kontu-unitatea pagu-unitate nola bilaka daitekeen ikusi (ikus Schmitt 1988).

Kontu-unitatea zenbaki hutsa da, abstraktua, numerarioa alegia. Argi dago ezin dela zenbakien bidez ordaindu; zenbakien errola paguetan zorrak eta kredituak zenbatzea da, ez beraiek kitatzea.

Batzuek euroa moneta paralelotzat ulertu dute; akats hori kontu-unitatearen eta pagu-unitatearen arteko nahasketatik dator. Zenbait autorek, moneta berria sortzeko kontu-unitate berria definitzea nahikoa dela uste du.

Badakigu euroa "moneten saskia" dela; ez da moneta ordea (oraingoz), benetako edozein moneta pagu-unitateen bilduma baita. Euroa moneta izan dadin, beharrezko da edozein monetak zirkulatzen duen moduan berak ere zirkulatzea. Irizpidea argi dago: monetaren zirkuitua banku jaulkitzailearen kreditu-zor bikoteak eta koerlatibo diren bi eragiketek definitzen dute: (i) Agentearen zorra bankuak ordaintzen duen kontuarekin, eta (ii) ordainduriko agentearen kreditua.

Deskribaturiko eragiketa trianguluar horretan, euroa erabiltzen hasten denetik, existituko du moneta bezala.

Euro moneta sortzeko baldintza beharrezkoa eta nahikoa da, erakunde bat, Europako banku zentrala alegia, bere bezeroen konturako eurotan ordaintzen hastea.

Hortaz, Europako monetaren atarian gaude. Euroak, bera ordainketetan egonen den heinean existituko du; gaur, aldiz, euroa zenbait ordainketaren kontu-unitatea da, eta hauek, beste ordainketak bezalaxe, moneta nazionaletan eginda daude.

Kaos intelektualak (paralelismo bat da hau) kaos monetarioa ez eramateko, euroari bere lekua eman behar zaio, moneta nazionalek berena izaten segituko duten moduan (Schmitt 1988).

1. 3. Hogerlekkoa

Absurdua omen da euskal banku jaulkitzailea eraikitzea. Ekonomilari gehienek ustez, ameskeria da euskal moneta jaulkitzea.

Hala ere, 'nazio monetario', 'banku zentral' eta 'moneta' kontzeptuak argi edukiz, nazioarteko moneten arteko desorekarekin bukatzeko bancor delakoa edo antzeko monetaren bat proposatuz, gaur egungo dolarren menpekotasunetik irteteko euroaren beharra gero eta nabarmenagoa izanez, biharko euroarekiko eta etziko bancorrekiko trukeak absolutuak izateko, eta gure ekonomia, benetan, babesteko, proposatzen dugun tesia argia da oso: biharko euroaren aurrean eta etziko bancor edo antzeko nazioarteko moneta berriaren aitzinean, Euskal Herriak, bere osotasunean, euskararekin batera, bere moneta eduki behar du, hogierlekkoa alegia.

Euskal Herriak XXI. mendearen erronkari eustearren, nahitaezko bal-

dintzatzat, ez nahikoa alta, independentzia behar du, bere Banku Zentrala bide dela, nazio monetario bilakatzeko.

2. Nazio baten subiranotasun monetarioa

Har dezagun edozein nazio, N ize-nekoa (Euskal Herri independentea izan litekeena). N nazioak, bere kanpo-eragiketak orekatu ahal izateko, bere eskalan, ordena monetario berria sortu behar du eta ezin du itxaron euroa behar den moduan jaulki arte, edo eta benetako nazioarteko moneta, bancorra edo antzekoren bat emititu arte.

Ikus ditzagun urratsak: suposa dezagun Nren moneta nazionala m moneta dela, (ikusiko den bezala, m barne-moneta, edo moneta ttipia, eta M kanpo-moneta, edo moneta handia, bereiziko ditugu).

N nazioak bere subiranotasuna berreskuratu beharra dauka, alegia, m monetak dolarren menpekotasunetik askatu behar du.

Hemen azalduko diren neurriek, Schmitten liburutik harturikoak (Schmitt 1984b), edozein nazio monetarioako balio dute. Bi moneta bereiziko ditugu: m moneta ttipia, egoiliarren arteko pagu nazionalerako eta M moneta handia, gainerako munduarekiko N nazioaren pagu hartzekodun eta zordunak definituko dituena.

Aipatuko diren neurriak hartuko direnean, hots, Banku-erreforma egina egonen denean, m moneta ttipiak ez du inolako bermerik edukiko moneta atzerritarrean; beraren bermea N nazioaren produktu nazionala izanen da. Moneta ttipia, m, ez da N naziotik ir-

tengo. Egia da inportatzaileak zorpetuak eta esportatzaileak kreditatuak izaten direla m monetan. Hala ere, bi ordainketek, hartzekodunak eta zordunak, N nazioaren barruan zirkulua osatzen dute, kanpo-departamenduak barne-merkatu finantzarioan inportatzaileengandik jasotako m monetak ezartzen baititu, eta esportatzaileei emandako m monetak ateratzen. Honela m moneta ez da inoiz eskatu ez eskaini atzerrian, berorren zirkulazioa transakzio nazionalerako, egoiliarren artean egindakoetara, mugatuta egon.

Moneta handia, M, N nazioaren (multzo bezala) moneta da, ez egoiliarrena. M, moneta handia, gainerako munduarekiko N nazioaren, bere osotasunean, pagu hartzekodun eta zordun guztien erreminta da. M moneta handiak ez du N nazioaren produktu nazionalaren ezelako parterik jaso, produktua erabat jasota baitago epe bakoitzean jaulkiriko m moneta ttipietan (Schmitt 1984b).

M moneta handiak badauka bermerik moneta atzerritar batean. Hau honela izatea logikoa da, oraingoz, dibisen patroiaren erregimen orokorrean bizi baikara.

Nazioarteko Moneta-Fondo berriak jaulkiko duen moneta berria (agian bancorra izan litekeena), zeina "saskia" izanen den, sortu baino lehen, N nazioak oraindik erreferentzia den Estatu Batuetako dolarra besterik ezin du erreferentziatzat eduki, edo beste kontu-moneta bat, euroa, kasurako.

3. Inportazio eta esportazioen ordainketak edo paguak N nazioaren barnean

i) N nazioaren barruan, egoiliarren arteko transakzioak, m monetan

barne-trukatzen dira.

ii) Egoiliar inportatzaileek (eta esportatzaileei) m monetan ordaintzen dute (eta ordaintzen zaie).

iii) Inportatzaileek eralgitako m monetak N nazioaren Banku Zentralaren kanpo-departamendura iristen dira, zeinak barneko finantz-merkatuan ezartzen dituen.

iv) Esportatzaileek eskuraturiko m monetak N nazioaren Banku Zentralaren kanpo-departamendutik datoz, zeinak barneko finantz-merkatuan maileguz hartzen dituen.

v) N nazioaren kanpo-departamentuak Altxor Publikoaren konturako funtzionatzen du.

vi) Inportatzaileek eralgitako eta kanpo-departamentuak irabazitako errentak Altxorraren bonutan ezartzen dira.

vii) Kanpo-departamentuak eralgitako eta esportatzaileek irabazitako errentak Altxorraren bonu-salmentatik datoz.

viii) Ordainketa konpentsazioz egin daiteke, inportatzaileek esportatzaileei ordaintzen diete kanpo-departamentuaren bitartez, Altxor Publikoaren bonuko suma bera, transakzio berean, salduz eta erosiz.

4. N nazioaren Banku Zentralaren kanpo-departamentuak M moneta-tituluak jaulkitzen ditu gainerako munduan

i) Bankuen funtzionamendu berria martxan jarri baino lehenagoko lehen fase batean, kanpo-departamentuak finantz-eragiketa hutsa den M moneta-

-tituluen jaulkipena egiten du. Neurri hau aukerakoa da.

ii) M moneta-tituluak dolarretan, edo eurotan (baldin eta euroa jadanik pagu-moneta izanen bada), bermez jaulkitzen dira; beste edozein kontu-moneta, soila edo konposatua, era berean atxiki dezakete.

iii) Demagun kanpo-departamentuak M moneta-tituluak euro baterako M moneta-titulu baten parekotasunean jaulkitzea erabakitzen duela. M moneta-titulu baten jabeak kanpo-departamentutik euro baten kontrabalioa lor dezake, berak nahi duen monetan.

iv) M moneta-tituluen hasierako jaulkipenak obligazio berria ezagutaraztea du helburu, eta m monetak zenbait hamar milioikoa izan daiteke.

v) Jaulkitako M moneta-tituluak erabat likidoak dira: kanpo-departamentuak berrartzen ditu, beren balio nominalean, beren jabeen eskaera soilaren arabera.

vi) M moneta-tituluen balorea eurotan (edo aukeratutako kontu-monetan) bermaturik dago batezbesteko iraupenerako, 3tik 5era urterako esate baterako. Epemugan, M moneta-tituluak berrartzen dira, beraien jaulkipenean ezarriko balioan.

vii) M moneta-tituluek indize konkretu batean daramate interesa, zeina aldakorra izan daitekeen, eta nazioarteko merkatu finantzarioan eskatzeko izan daitekeen mailan determinatuta egon.

viii) M moneta-tituluen jaulkipena inplizitua baldin bada soilik, M moneta handiak batezbesteko eperako zuzenki dolarretan bermaturiko balioa dauka.

5. N nazioaren pagu hartzekodunak eta zordunak gainerako munduari begira

i) Berari dagokion atzerritarraren aurrean edozein egoiliar zordunek kanpo-departamendura eramaten du bere zorra.

ii) Berari dagokion atzerritarrak kreditatutako edozein egoiliar kanpo-departamenduaren hartzekoduna da.

iii) Atzerriarekiko kreditu eta zor guztiak kanpo-departamenduak hartzen ditu kontuan. Honela, paguen balantza orokorrak kontaturiko fluxu guztiak kanpo-departamenduan zehar ibiltzen dira.

iv) Kanpo-departamenduak bere kanpo-zorrek M moneta-tituluak jaulkiz ordaintzen ditu. Bi era posible daude: kanpo-departamenduak dohainik herrialde hartzekodunen Banku Zentralei M moneta-tituluak transferitzea, edo nazioarteko merkatu finantzarioan M moneta-tituluak saltzea, eta herrialde hartzekodunari, berorrek aukeraturiko monetan, produktua ematea.

Lehen kasuan, herrialde hartzekodunaren Banku Zentralak berak erosi nahi ez dituen M moneta-tituluen salmenta egiten du.

v) M moneta-tituluen bidez kanpo-departamenduari bere kanpo-kredituak ordaintzen zaizkio. Berriz ere, bi moduek ondorio berberera eramaten dute. Banku Zentral atzerritarrak nazioarteko merkatu finantzarioan M moneta-tituluak erosten ditu eta kanpo-departamenduari dohainik ematen; edo Banku Zentralak dibisa trukagarri batean beroni dagozkion M moneta-tituluen kontrabaloa ematen du: orduan kanpo-departamenduak berak nazioarteko

merkatu finantzarioan M moneta-tituluak erosten ditu.

vi) Epe bakoitzean N nazioaren pagu hartzekodunen eta zordunen fluxuan eta birfluxuan erabilitako M moneta-tituluen kopurua oso kalkulu erraz batek determinatzen du: ordainketaren unean, euroarekiko moneten trukaneurria ezagutzen da eta eurotan M moneta-tituluen balore aurre-determinatuarekin konparatzen da.

Eredua: Demagun N nazioa x dolarren zorduna (edo hartzekoduna) dela; berak M moneta-tituluko y kopurua eman behar du (edo eskuratu) baldin eta, paguaren mementuan, x dolarrek y euroen balioa badute trukeen merkatuan (ulertzen da euro baterako M moneta-titulu baten parekotasuna ezarri dela).

vii) M moneta-tituluak konpentsazio hutsez jaulkiak eta berrartuak izan daitezke. Kasu honetan, jaulkipena inplizitua da soilik, eta paguak bat-batean M moneta handian egiten dira.

6. M moneta handiaren eta m moneta ttipiaren harremanen definizioak

M moneta handia, M moneta-tituluen izendapen-moneta da; m moneta ttipia egoiliarren artean egindako transakzio guztien moneta da.

i) m moneta ttipia gaur egunean edozein herrialdetan erabiltzen den monetaren antzekoa da: bera N nazioaren Banku sistemak sortzen du produkzio nazionalaren, kapitalaren eraketaren, epe bakoitzeko produktuen banaketaren eta salmentaren finantzaketarako.

m moneta fiduziaroaren (moneta zentrala) eta m moneta eskripturalaren (bankuetan ezarria) jaulkipenaren erregelak ez dira aldatzen. Hala ere, ez da ezelako m monetarik sortzen dibisa atzerritarren aldatetan. Izan ere, atzerriaren kontrako egoiliar baten edozein kreditu automatikoki kanpo-departamenduaren kreditu bilakatzen da. Ezein egoiliarrek, beraz, ezin du m monetan dibisen bihurtzerik eskatu. Egiazkoa da atzerriaren kontra, egoiliarren ordeztu, kanpo-departamendua dela hartzekoduna. Baina N nazioaren Banku Zentralaren kanpo-departamentua ordezkari finantzario hutsa da: barnean, eskuraturiko m monetak ezartzen ditu eta berak atzerriari zor dizkion m monetak maileguz hartzen; kanpoan, M moneta-titulua esplizituki edo inplizituki jaulki eta berrartzen ditu. Transakzio horietan guztietan, kanpo-departamenduak ez ditu dibisa atzerritarrak m monetan aldatzen.

ii) M moneta handia N etxearen edo N multzoaren moneta da. N nazioaren (bere osotasunean hartua) zorrak eta kredituak definizioz kanpokoak dira; are zor publikoa N multzoaren zor nulua da, bera, egoiliar hartzekodunen eta zordunen arteko barneko harremana baita. Logikoa da, hortaz, egoiliarren moneta eta N nazioaren, bere osotasunean, moneta desberdinak izatea.

Ongi zehazturiko paguen sistema batean, ezein egoiliar ez da ez hartzekodun ez zordun, m monetan ez bada; alderantziz, N nazioa, bere osotasunean, ezin daiteke ez kreditatu ez zordundu m moneta, transakzioaren jatorria edo bukaera atzerrian baitago eta N etxearen kredituak eta zorrak M monetan definituak baitira, M moneta-tituluen fluxuan eta birfluxuan sortu eta desagaturiko monetatan alegia.

iii) m moneta tipia nazioarteko toki guztietan, baita N nazioan ere, elkartruke erlatiboan merkatutik kentzen da. Atzerria helburu duen egoiliar baten edozein pagu kanpo-departamenduak geldiarazten du; alderantziz, egoiliar bati atzerritik emandako edozein m moneta N nazioaren merkatu finantzariotik dator, non bera kanpo-departamenduak maileguz ezarri duen.

Egoiliarrek N nazioaren Bankuaren biletan eskuzko elkartrukea praktikatzen segi dezakete, turismoaren beharrak direla kausa. Baina kasu horretan ere, truke-eragiketa kanpo-departamenduak egiten du, biletan bihurtuen saldo guztiak hartu eta dolarretan beraien kontrabaliu zehatza jaulkiz, N nazioaren egoiliarren edozein inportazioaren antzera. Simetrikoki, N nazioan turistek aldatutako biletan atzerritarren saldoa kanpo-departamendura ailegatzen da, zeinak nazioarteko merkatu finantzarioan dolarretan erosteko gastatzen duen. Kanpo-departamentuak, beraz, m monetaren trukearen monopolio absolutua du. Are gehiago, m monetaren trukea berdefiniturik dago erabat.

Nazioarteko gaur egungo sisteman, trukeneurriak erlatiboak dira, eta moneta nazional batzuk beste batzuen kontra eskaini eta eskatzen dira; N nazioaren monetaren sistema berrian, m monetak trukeneurri absolutua besterik ez du ezagutzen. Hori honela dela ongi ikusten da, kanpo-departamenduak barnean hartu edo eman egiten baititu egoiliarren nazioarteko transakzioetan eskuratutako edo gastaturiko m moneta guztiak.

iv) m moneta ttipiaren antzera, M moneta handia trukeneurri absolutuaren menpe dago:

1. N nazioaren edozein pagu zordun nazioarteko merkatu finantzarioan M moneta-tituluen salmentaren bidez egiten da. Honela irabazitako (mailegaturiko) M monetak berehala moneta atzerritar bihurtzen dira. Hala ere, eragiketa ez da hor gelditzen: M moneta-tituluek desbahituriko dibisak zorraren paguan eralgiak ere izaten dira. M moneta handiaren trukeneurria absolutua dela egiaztatzen da, dibisak eskuratuak edo eralgiak baitira eragiketa berean. Kanpo-departamenduak eskuratzeko duen edozein dibisa M monetaren eskaintza da, eta kanpo-departamenduak eralgitako edozein dibisa M monetaren eskaria. N nazioaren zorren pagu orok (kanpo-departamenduak egini) M monetaren eskari eta eskaintza baliokideak definitzen ditu, hortaz; soilik eskatzen denean eskaintzen bada, M moneta handia trukeneurri absolutuaren menpe dago.

2. N nazioaren edozein pagu hartzekodun M moneta-tituluen erosketaren bidez gauzatzen da. Eralgitako (itzulitako edo berreskuraturiko) M monetak eragiketa berean moneta atzerritar bihurtzen dira. N nazioaren edozein kredituren ordainketak dibisen eskari eta eskaintza baliokideak definitzen ditu; eta soilik eskatzen denean eskaintzen bada, M moneta handia trukeneurri absolutuaren menpe dago.

v) Monetak beraien artean elkartrukatzeko diren merkatu guztietatik erretiratzen badira ere, m moneta ttipia egunero kotizatzen da. Arrazoia soila da: N nazioak Europako Moneta-Sistemaren parte izaten segitzen du. m moneta ttipia euroarekin definitzen segitzen da.

vi) M moneta handiaren balioa batezbesteko epe osorako finkatzen da; bera aukeraturiko kontu-monetan, eurotan kasu, definitzen da.

vii) Bi monetak (m eta M) ebaluatzeko aukeraturiko kontu-moneta euroa baldin bada, eurotan m moneta ttipiaren eta M moneta handiaren balore erlatiboa konstantea da.

Etsenplua: demagun euro baterako M moneta baten parekotasuna finkatzen dela, eta m monetaren parekotasuna 1/6 eurokoa dela. Epe osorako, orduan, M moneta bat eta 6 m monetaren parekotasuna egiaztatuko da. Baldin eta, ordainketa egunean eta monetaren merkatuaren arabera, euro batek 2,3 marko balio badu, kanpo-departamenduak M moneta bat jaulki (edo hartzen) du 2,3 markoko kopurudun N nazioaren edozein ordainketa zordunerako (edo hartzekodunerako); egoiliarrei dagokien ordainketa, negatiboa edo positiboa, orduan, 6 m monetakoa da.

Bibliografia

- Schmitt, B. (1984a): *Inflation, Chômage eta Malformations du Capital*, Castella, Suisse.
———, (1984b): *La France Souveraine de sa Monnaie*, Castella, Suisse.
———, (1988): *L'Ecu et les Souverainetés Nationales en Europe*, Dunod, Paris.